UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

# 12ª edición del Congreso Europeo sobre Eficiencia Energética y Sostenibilidad en Arquitectura y Urbanismo (EESAP 12) y 5º Congreso Internacional de Construcción Avanzada (CICA 5)

EESAP12 CICA5
EUROPEAN CONFERENCE 2021
29-30 SEPTEMBER · BILBAO

## 29.Ira - 30.Ira

### Kod. Z17-21

**Edizioa**
2021

**Jaduera mota**
Workshop

**Data**
29.Ira - 30.Ira

**Kokalekua**
Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

**Hizkuntzak**
Gaztelera, Ingelera

**Balio akademikoa**

20 ordu

**Web**
http://eesap.eu/index.php/es/inicio/

**ZUZENDARITZA**

**Rufino Javier Hernández Minguillón**, UPV/EHU, Arquitectura

**Jon Ansoleaga Ugarte**, ERAIKUNE, CLUSTER DE LA CONSTRUCCIÓN DE EUSKADI

## Antolakuntza Batzordea

Fundación BBVA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

# Azalpena

**Workshop-a aurrez aurre ospatuko da eta online zuzenean parte hartzeko aukera ere egongo da ZOOM bidez. Matrikula prozesuan nola parte hartuko duzun aukeratu: aurrez-aurre edota online zuzenean.**

Eraginkortasun Energetikoa eta Jasangarritasunaren inguruko Arkitektura eta Hirigintzaren hamabigarren Biltzar Europarrak (EESAP 12), eta Eraikuntza Aurreratuen bosgarren Biltzar Internazionalak (CICA 5), berritze boladaren gaia landuko dute. Europako Batzordearen estrategiaren ildotik, helburua izango da eraikinetan bizi diren pertsonen bizi kalitatea hobetzea, berotegi efektuko gasen emisioak murriztea eta digitalizazioa sustatzea, materialak berrerabiliz eta birziklatuz. Nola ari da aldatzen arkitektura eta eraikuntza industria, parke eraikia berritzeko premia larriaren aurrean?

Gure ohiko kolaboratzaileak eta biltzarraren hamabigarren edizioan parte hartu nahi duten guztiak gonbidatzen ditugu beren proposamenak aurkeztera, ezberdinak izango diren 2030. eta 2050. urteei begira. Aurreko edizioetan bezala eta bere alderdi akademikoan oinarrituta, biltzarra bereziki ikasle, profesional eta ikertzaileei zuzenduta dago.

EESAP8/CICA1 ediziotik, zientzia eta teknikaren hedapen eremua eraikuntza berrikuntzara zabaldu da, bai eta enpresa mundura ere, enpresa berrikuntza indartzeko dauden gizarte beharrei erantzuna emateko, eta era berean, herritar guztien bizi kalitate gorena lortzeko bidean jartzeko.

Antolakuntza batzordean, CAVIAR ikerketa taldeak (Bizi Kalitatea Arkitekturan, UPV/EHU) eta ERAIKUNEk (Euskadiko Eraikuntza Klusterra) osatua, gaurkoak eta berritzaileak diren gaiak landu nahi izan dira, beti bezala. Espazio horretan, profesionalek, ikertzaileek, ikasleek eta enpresek elkarrekin jardun eta ezagutzak trukatu ditzakete, hitzaldi magistralak, mahai inguruak, komunikazio libreak eta berrikuntzarako lankidetza tailerrak (networking) biltzen dituen programa baten bidez. Bi biltzarrak paraleloan egingo dira eta programaren zati bat eta hitzaldi magistralak partekatuko dituzte. Bestetik, komunikazio saioetan gai zehatzak landuko dira, eta tailerretan, berriz, lankidetza bultzatuko da proiektu konkretuetan. Komunikazio saioak areto ezberdinetan izango dira eta parte hartzaileek aukeratu dezakete zer saiotan parte hartuko duten.

Gai zerrenda:

1. Ingurumen kontzientzia. osasuna eta erosotasuna, ekosistemak, kudeaketa
2. Hiri berroneratze jasangarri eta efizientea
3. Hiri bizigarria, inklusiboa eta jasangarria
4. Ekonomia jasangarria: eraikitako esperientziak. Teknologia, monitorizazioa
5. Murriztu, berrerabili, birziklatu, birpentsatu
6. Lean/bim architecture and planning
7. Arriskuan dauden hiriak. Erresilientzia eta erredundantzia
8. Ondarea eta jasangarritasuna. Eraikinak, hiriak, paisaiak
9. Smart communities. Teknologia, monitorizazioa, pribatutasuna
10. Trantsizioa: energia, mugikortasuna, digitalizazioa, materialen erabilera
11. 4.0 eraikuntza. Digitalizazioa eta prozesu zirkularra
12. Zura eta material bioinarridunak. Baliabide jasangarria eta berriztagarria

## Helburuak

Datozen hamar, hogei eta hogeita hamar urteetan lurralde, hiri eta eraikuntza eredu berriak ezartzeko berrikuntza estrategiei buruz eztabaidatzea, eraikuntza industriaren arlo hauetan: energia, mugikortasuna, manufaktura, kudeaketa...

Prestakuntzaren, ikerketaren eta ekoizpenaren arteko bateratze estrategikoa lortzea.

Eraikuntza industriaren sektoreko eragileak elkartzea teknologia berriak aplikatuz lehiakortasuna areagotzeko, esperientzia, zehatza ez baina zabala bai, behar den jardueretan.

Enpresa ingurune kolaboratiboak sortzea.

## Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak

UPV/EHU caviar
calidad de vida en arquitectura
quality of life in architecture

ERAIKUNE
Construction Cluster

Donostia
Sustainability
Forum

# Zuzendariak



### Rufino Javier Hernández Minguillón

UPV/EHU, Arquitectura
*(Donostia)*

---

Arkitekto doktorea UNAV (1991), Eraikuntza masterra UNAV (1993), ETSA-UNAVeko irakaslea (1984 eta 2003), UPV/EHUko irakasle titularra (1997tik), katedraduna (2020). Ingeniaritza Zibila eta Arkitekturaren arloko ANECA eta ANEP ebaluatzailea. AH arkitektura-estudioaren sortzailea. ERAIKUNE Euskadiko Eraikuntzaren Klusterreko Zuzendaritza Batzordeko kidea (2013-) eta lehendakariordea (2013-2016). Eraikuntza Iraunkorra eta Energia Eraginkortasuna masterreko zuzendaria (UPV/EHU). Energia Eraginkortasun eta Jasangarritasunaren Ikerketa Industrian, Garraioan, Eraikuntzan eta Hirigintzan masterreko Batzorde Akademikoko kidea (UPV/EHU). Eraikuntza Aurreratua masterreko zuzendaria (UPV/EHU). CAVIAR Ikerketa Taldeko arduraduna, IT1135-16 (UPV/EHU). Ikertzailea eraikuntza industrializatu ekoeraginkorrean, hirigintza ekoeraginkor inklusiboan, arkitektura eta hirigintza adimendunetan.



### Jon Ansoleaga Ugarte

ERAIKUNE, CLUSTER DE LA CONSTRUCCIÓN DE EUSKADI

---

Eraikuneko, Euskadiko Eraikuntzaren Klusterreko zuzendaria, duela 3 urte baino gehiagotik. Aurretik, berrikuntza eta lehiakortasuneko aholkulari-lanak egin ditu IDOM, Consulting, Egineering eta Architecturen, 5 urtez, Mexikoko Low Carbon Business Action proiektuan aditu gisa parte hartuz. Bere lehen sei urteetan, Infyde SLko Proiektuen Zuzendari izan zen.

# Matrikula prezioak

| AURREZ AURRE EESAP | 2021-07-31 ARTE | 2021-09-28 ARTE |
|---|---|---|
| OROKORRA | 100,00 EUR | 150,00 EUR |
| IKASLEAK | 40,00 EUR | 40,00 EUR |
| EGILEAK | 100,00 EUR | 100,00 EUR |
| ERAIKUNE BAZKIDEA. * Lehen sarrera | 0 EUR | 0 EUR |
| ERAIKUNE BAZKIDEA. * Sarrera osagarriak | 50,00 EUR | 50,00 EUR |
| ANTOLATZAILEAK eta BABESLEAK | 0 EUR | 0 EUR |

| ONLINE ZUZENEAN EESAP | 2021-07-31 ARTE | 2021-09-28 ARTE |
|---|---|---|
| OROKORRA | 100,00 EUR | 150,00 EUR |
| IKASLEAK | 40,00 EUR | 40,00 EUR |
| EGILEAK | 100,00 EUR | 100,00 EUR |
| ERAIKUNE BAZKIDEA. * Lehen sarrera | 0 EUR | 0 EUR |
| ERAIKUNE BAZKIDEA. * Sarrera osagarriak | 50,00 EUR | 50,00 EUR |
| ANTOLATZAILEAK eta BABESLEAK | 0 EUR | 0 EUR |

| AURREZ AURRE CICA | 2021-07-31 ARTE | 2021-09-28 ARTE |
|---|---|---|
| OROKORRA | 100,00 EUR | 150,00 EUR |
| IKASLEAK | 40,00 EUR | 40,00 EUR |

| AURREZ AURRE CICA | 2021-07-31 ARTE | 2021-09-28 ARTE |
|---|---|---|
| ERAIKUNE BAZKIDEA. * Lehen sarrera | 0 EUR | 0 EUR |
| ERAIKUNE BAZKIDEA. * Sarrera osagarriak | 50,00 EUR | 50,00 EUR |
| ANTOLATZAILEAK eta BABESLEAK | 0 EUR | 0 EUR |

| ONLINE ZUZENEAN CICA | 2021-07-31 ARTE | 2021-09-28 ARTE |
|---|---|---|
| OROKORRA | - | 0 EUR |

# Kokalekua

## Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Abandoibarra etorbidea. 48009- Bilbo

Bizkaia